

El libro termina con el proyecto de restauración del arquitecto Pablo Borde Ondarra y los aparejadores Francisco Castiella Burlada y Xabier Celaya Arza. En él se dan cita las principales patologías que presentaba la Universidad de Oñati, y se incluye la intervención del patio, convertido ahora, mediante la sustitución del enlosado por un espacio de hierba, en un claustro.

Agustín Gómez

DÍAZ NOCI, Javier

Euskal prentsaren sorrera eta garapena (1834-1939)

(Cuadernos de sección. Medios de Comunicación, 5. zka.). Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1995. I.S.B.N. 84-87471-86-2

Esku artean dugun lan bikain hau Javier Diaz Noci-ren Tesia-ren muina da. Bere tesis Eusko Ikaskuntzan bi ataletan banatua argitaratua agertzen da horrela. Lehenik bere gehigarria argitaratu zuen elkarteak, eta oraingo honetan Arabako foru aldundiaren laguntzaz argitaratzen da Tesia-ren gorputza Medios de Comunicación deituriko atalean.

Lan-saileko koaderno hauetan bi dira egile batek egindako tan monografiak. Lehenengo hura, 1984 urtean, urte bete lehenago Eusko Autonomi Elkartearen egindako inkestaren berri ematen zuen, eta oraingo honek euskal prentsaren sorreraren historia lantzen du. Kasu gehienetan prentsa hura sakabanatua, isolatua eta askotan jarraipenik gabekoa bazen, guztien artean lotura bat zutela agertzen zaigu Diaz Noci-ren lan honetan.

Lan bikain honek Euskalerriko prentsaren sorrera aztertzen du. Euskalerriko prentsaren ehun urte, 1834tik abiatuta, 1939 arte. Historiako lana bada ere, nabaria da egilearen formazioa eta lan-bidea, kazetariarena alegia, irratiko kazetariarena; egun EHUKo irakaslea bada ere Kazetaritza atalean. Idazkera arin eta zorroz batez “margotzen” ditu garai horietan gertatutakoak.

Hiru ataletan landua dator, euskal prentsaren hastapenak (1834-1919) euskarazko prentsa informatiboaren gailurra (1919-1936) eta espainako gerra zibila eta euskal prentsa (1936-1939).

Lehen atalean almanaken garaia, amerikako prentsa, aldizkari kulturalak, politikoa, nekazal alorreko eta erlijiosoak aztertzen ditu. Begirada berezia prentsa abertzale-jelkideari eskainiz atal honen barruan. Bigarren atalean euskarazko aldizkari multzo baten sorrera aztertzeari ekiten dio. Garai hau, Siadeco-k Euskaltzaindiarentzat egindako lan bati esker, oso oparoa bezala ezagutzen genuen¹. Atal honetan azpimarratzekoa da *Argia* aldizkariari eskaintzen saion azterketa berezia: sorreratik bizi izan dituen garaia politiko guztiak aztertuz. Alboan bizi izan diren aldizkari guztiak ere aztertzen dira. Hala nola erlijiosoak (*Ekin*), informaziozkoak (*Euzkadi* eta *Euzko*), politikoak (*Tierra vasca*, *Jagi-jai*, edo *Mendigoizale*) besteak beste. Atal hau amaitzeko komikigintza eta irratigintza ere aztertzen ditu. Azkenik, hirugarren atalean, *Eguna* gerra aurretik izan dugun euskarazko egunkaria sakon aztertzen du.

Liburu honen balio haundiena historia jarraiki euskal gizartean euskaraz bizitzeko izan duen grina, eta emandako urratsak agertzean datza. Aldi berean une horietako euskal gizartearen soziologia eta ohiturak ondo markatuak agertzen zaizkigu. Inongo dudarik gabe, behar genuen liburua egin duela Javier Diaz Noci-k, esan dezakegu.

Sabin Oregi Zarautz

1. Ikus *Hizkuntz borroka Euskal Herrian*, Euskaltzaindiak Lankide aurrezkiarekin batera 1979.ean argitaratua. 175 orria eta hurrengoak.